

Euskal Herriko Unibertsitatea  
Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua

## **Gradu Amaierako Lana**

### **AUTOFIKZIOA EUSKAL LITERATURAN**

Lorea Azpeitia Anta

Tutorea: Natalia Vara Ferrero

2016ko ekaina

Ingeles eta Aleman Filologia

eta Itzulpengintza eta Interpretazioa Saila



# Aurkibidea

0. LABURPENA.....	2
1. SARRERA .....	2
2. EDUKI TEORIKOAK .....	3
2.1.    AUTOFIKZIOAREN INGURUKO AZTERKETA TEORIKOA.....	3
2.1.1.    ZER DA AUTOFIKZIOA?.....	4
2.1.2.    KONTZEPTUAREN JATORRIA .....	5
2.1.3.    BILAKAERA HISTORIKOA: XVIII. MENDETIK POSTMODERNITATERA.....	8
2.1.4.    AUTOFIKZIO MOTAK.....	10
2.1.5.    PARATESTUAREN GARRANTZIA .....	11
2.2.    EUSKAL LITERATURA GARAIKIDEA ETA AUTOFIKZIOAREN LEKUA.....	12
2.2.1.    LITERATUR SISTEMA TXIKIA.....	12
2.2.2.    EUSKAL LITERATURA GARAIKIDEA ULERTZEKO GAKO BATZUK... ..	13
2.2.3.    AUTOFIKZIOARENTZAT KLIMA APROPOSA.....	15
3.    AUTOFIKZIOA PRAKTIKAN.....	16
3.1.    EUSKAL LITERATURAN IZAN DUEN HARRERA.....	16
3.1.1.    IDAZLEEN IKUSPUNTUTIK.....	16
3.1.2.    ZER ESAN DA LITERATUR KRITIKAN?.....	18
3.1.3.    LITERATUR SISTEMA TXIKIA IZATEAREN ALBO-KALTEAK.....	20
3.2.    AUTOFIKZIOAREN ARRASTOAREN ATZETIK .....	21
4.    ONDORIOAK.....	26
BIBLIOGRAFIA.....	28

## 0. LABURPENA

Lan honetan autofikzioa ikertu da, bereziki euskal literaturan duen lekua eta izan duen harrera aztertu direlarik. Horretarako, honako eskema hau jarraitu da: Lehenik eta behin, lanaren alderdi teorikoa azaldu da; batetik, autofikzioaren inguruko teoria aurkeztuz. Bertan, autofikzioa zer den definitzeko saiakera egin da, teorialari desberdinek emandako definizioak aurkeztuz; autofikzioaren sorreraren berri eman da ondoren, baita haren bilakaera historikoa labur deskribatu ere; eta, jarraian, autofikzio mota desberdinen berri eman da, azkenik, paratestuak autofikzioaren irakurketan duen garrantzia azpimarratzeko. Ezin esan gabe utzi atal hori garatzeko bereziki Albercaren *El pacto ambiguo* lana hartu dela oinarritzat, berea baita hispaniar literaturan autofikzioari buruz egin den lanik osatuena (ikus bibliografia). Bestetik, euskal literatura garaikidea laburki deskribatu nahi izan da bertan autofikzioak betetzen duen lekua ulertu ahal izateko. Horretarako, literatur sistemaren izaera eta literatur kritikaren egoera sakondu da bereziki. Bigarrenik, lanaren alderdi praktikoan, autofikzioak euskal literaturan izan duen harrera aztertu da, bai idazleen ikuspuntutik eta baita literatur kritikarien ikuspuntutik ere. Idazleei dagokienez, euskal literaturan autofikzioaz gehien jardun duten idazleak aukeratu dira beren obrak aztertzeko: Iban Zaldua, Miren Agur Meabe eta Kirmen Uribe. Hortaz, idazle horiek autofikzioaren aurrean agertu duten jarrera aztertu ostean, idazle horien obra bana ekarri da haien autofikziozko izaera analizatu eta, hartara, lan hau adibide praktikoan bitartez borobiltzeko. Horretarako, honako obrak aztertu dira: Zalduaren *Idazten ari dela idazten duen idazlea edo literatura gaixotasun gisa (Idazten)*, Meaberren *Kristalezko begi bat (Kristalezko)* eta Uriberen *Bilbao-New York-Bilbao (BNB)* (ikus bibliografia). Amaitzeko, lan honetatik ateratako ondorioak aurkeztu dira. Lan honen amaieran beraz burutzeko erabilitako bibliografia dago eskuragarri.

## 1. SARRERA

Lan honen helburu nagusia autofikzioak azken hamarkadetan euskal literaturan izan duen oihartzuna azterzea da, baita autofikzioak horren literatur sistema txikian funtzionatzen ote duen hausnartzea ere. Aurrera jarraitu aurretik argitu nahi da lan honen

helburuen artean ez dagoela ez autofikzioaren definizio zehatz bat ematea, ezta haren generoa determinatzea ere. Hamaika aditu ahalegindu dira horretan eta ondorio argi bat atera daiteke euren saiakeretatik: definizioak bere baitan hartzen dituen elementuak oso konplexuak dira definitzeko, eta horrek, autofikzioaren beraren definizioa ematea are gehiago zailtzen du. Gainera, autofikzioaren izaera sailkatzeak ere eztabaidak sortu ditu, genero desberdinen ezaugarriak hartzen baititu bere baitan eta, ondorioz, e azpigenero edo narratibaren modalitate gisa sailkatzen da, orokorrean. Eztabaidak eztabaida, lan honetan ikuspegi desberdinak azalduko dira, bertatik norberak ondorioak atera ditzan. Hala ere, lan honen asmoa ez da autofikzioaren existentziaren inguruko eztabaidetan sakontzea, esaterako, ezta posmodernitatearen garaian baina lehenago landu den narratibaren modalitatea izan den ala ez ebaztea ere. Esan bezala, lan honen xedea autofikzioak euskal literaturan duen lekua aztertzea izango da, baita landutako teoria hori azken hamarkadetan euskal literaturan eman den autofikzioarekin uztartzen ahalegintzea ere. Dena den, ezin esan gabe utzi inguruko literaturetara jo behar izan dela autofikzioari buruzko informazio teorikoaren bila, izan ere, eta lanean zehar egiaztatuko den moduan, euskal literaturan oraingoz ez da halako ikerketa landurik egin autofikzioaren inguruan. Halabaina, gaian sakondu aurretik, honako hau argitu nahi da: topatu den bibliografia erdaraz dago (bai gazteleraz, bai frantsesez eta bai alemanez). Ondorioz, aurkitutako informazioa euskarara itzuli da, aurrerago gai honen inguruan ikerketarik egingo bada materiala euskaraz eskuragarri egon dadin. Bestalde, argitu nahi da euskaraz autofikzioari buruz esan den gutxia testuinguru dibulгатiboan esan dela, orokorrean. Horregatik, autofikzioaren inguruko euskal idazle eta kritikarien iritziak biltzeko *Berriako* artikulu batera, *Armiarma* proiektuko Kritikken Hemerrotekan bildutako kritiketara, EITBko *Sautrela* literatur saioko programa batera eta blog sarrera batera jo behar izan da lan hau burutu ahal izateko.

## **2. EDUKI TEORIKOAK**

### **2.1. AUTOFIKZIOAREN INGURUKO AZTERKETA TEORIKOA**

### 2.1.1. ZER DA AUTOFIKZIOA?

Azken boladan, gero eta nabarmenagoa da autorearen presentzia obran eta, aldi berean, irakurlearen irudia ere gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da, obraren barruan erreferentziazko elementua bihurtzen ari delarik. Literaturan errealitatea eta fikzioa ez doaz bakoitza bere aldetik, hau da, ezin ditugu era artifizialean bata bestearengandik banandu. Autofikzioa bi esfera horiek elkartzeko saiakera bat dela esan genezake, edo bien arteko hutsunea betetzeko saiakera bat (Alberca, 2007: 61. orr.). Autofikzioaren definizioak desadostasun ugari sortu ditu literatur kritikarien artean eta nik hona zenbait definizio besterik ez ditut ekarriko, nire lanaren luzerak sakonago aztertzeko betarik ematen ez baitit.

Autofikzioa definitzerako garaian nolabaiteko anbiguotasuna sortzen da ezinbestean, izan ere, autofikzioak barnean hartzen dituen elementuak definitzea ez da batere lan makala. Definizio bat emateak literaturaren, fikziozko eta egiazko kontakizunen eta generoaren mugen inguruan hausnartzera garamatza. Hori da, hain zuzen, definizioa zehaztea zailtzen duena (Rickertsen, 2011). Hasiera batean, autobiografiarekin lotua izan zen baina zenbait kritikarik ez zuten modalitate narratibo horren anbiguotasun generikoa besterik gabe onartu nahi izan eta, 80ko hamarkadatik aurrera, eleberriarekin lotzen hasi ziren. Vincent Colonna, esaterako, proposatzen dituen lau autofikzio moten artean, "autofikzio fantastikoa" aurkitzen da. Bertan, autorea testuaren erdigunean ageri da, autobiografietan gertatu ohi den moduan, baina argi gelditzen da fikziozko pertsonaia dela, autorearen bizitza edo izaera errealekengandik urrun dagoela (Colonna, 2012: 85. orr.). Zentzu horretan, ni-a fikzionalizatzeko erabilitako tresna gisa ulertzen du, gertaeren egiazkotasunari apenas erreparatu gabe (Casas, 2014: 8. orr.).

Bestalde, Ana Casasen iritziz (autofikzioaren alorrean aditua den hispaniar filologoa) autofikzioa autobiografiaren adierazpen postmodernoa da, sortu zenetik, autobiografiari hertsiki lotua egon dela argudiatuz (2014: 7-8. orr.). Casasek kontzeptua bera haren sorrerarekin hertsiki lotzen du. Haren ustetan, autofikzioak gradazio oso desberdinak onartzen ditu obren fikzio eta errealitatearen arteko proportzioari dagokionez eta autofikziozko obra guztiek honako ezaugarri hauek dituzte amankomunean: autorea pertsonaia gisa agertzen da eta fikziozko zein egiazko elementuak txertatzen dira obran,

paratestuak egiazkotasun hori baieztatzen edo ezeztatzen duelarik (Casas, 2012: 9-11. orr.)<sup>1</sup>.

Badago, hala ere, autofikzioa autobiografia eta eleberriaren arteko uztartze gisa ulertzen duenik ere. Manuel Albercak autofikzioarentzat honako definizio hau proposatzen du: “fikzio gisa aurkezten den eleberri edo istorioa non narratzailearen eta pertsonaiaren izena autorearenarekin bat datozen” (2007: 158. orr.). Albercaren arabera, autofikzio orok errespetatu beharreko bi printzipio daude: eleberri-ituna eta itun autobiografikoa. Bi itun horien arteko itun hibrido batek, itun anbiguo gisa izendatzen duen itunak, bide ematen dio autofikzioari (Alberca, 2007). Aipaturiko itunen nondik norakoak aurrerago azalduko ditut, kontzeptuaren jatorria aztertzerakoan.

Euskal literaturan adituak direnen artean, Jon Kortazar literatur kritikariak Albercaren definizioari helduta eman du bere iritzia. Hona hemen zer dioen:

Autofikzioa erabiliz moteldu egiten dira errealitatearen eta fikzioaren arteko mugak, [...] ezinegona sortuz irakurlearen irudimenean. Narratzailea ez da soilik egilearen “ahotsa”, baizik eta haren irudiaren forma hartzen du, eta irakurleak ez du jakingo non amaitzen den bataren eta itzala eta bestearen izaera. Autofikzioan, egilea narratzaile gisa agertuz, bere “nitasuna” jartzen du agerian, baina antzeko nitasuna da, une berean, bera eta beste bat. Azken puntuan pertsonaren eta pertsonaiaren arteko desberdintasuna jarri du kolokan. Errealitatearen eta fikzioaren arteko mugak zalantzan ipini dira (Kortazar, 2011: 84. orr.).

Zenbait euskal idazlek ere, eman dute beren definizioa, era dibulгатiboagoan izan bada ere. Iban Zalduak, esaterako, EITBko *Sautrela* literatur saioan autofikzioa “fikzio bat eraikitzea, gezur baten bitartez egia batera, txikia bada ere iristea” zela adierazi zuen<sup>2</sup>.

### 2.1.2. KONTZEPTUAREN JATORRIA

*Autofikzioa* autobiografiari hertsiki lotua izan da sortu zenetik. Philippe Lejeune frantsesak “Le pacte autobiographique” izeneko artikulua 1973. urtean argitaratu zuen lehenengoz eta aurrerago, 1975ean argitaratutako *Le pacte autobiographique* liburuan gaia sakondu zuen (Alberca, 2007: 66. orr.). Bertan egin zuen Lejeunek idazketa

---

<sup>1</sup> Aurrerago atal bana eskaini zaie kontzeptuaren jatorriari eta paratestuaren garrantziari.

<sup>2</sup> Informazio hori EITBko 2014ko ekainaren 21eko *Sautrela* literatur saiotik atera da.

autobiografikoei buruzko lehen teorizazio garaikidea eta hortik abiatuta etorriko ziren gainontzeko teorizazio eta kontzeptu berriak, autofikzioari bide emango ziotenak.

*Autofikzio* terminoa Serge Doubrovsky irakasle eta eleberrigile frantsesak sortu zuen 1977. urtean. Bazirudien terminoa sortu bezain pronto desagertuko zela, baina gurekin gelditu da eta haren erabilera zein garrantzia areagotuz joan dira, gaur egun interes handia sortzen duen gaia izateraino (Alberca, 2007: 54. orr.). Doubrovskyk *Fils* eleberraren kontrazalean erabili zuen lehenengo aldiz, eleberri hura “hertsiki errealak diren gertaeren fikzioa” zela definitzeko. Hortaz, Doubrovskyk genero hibrido baten alde egin zuen, Philippe Lejeunek 1973ko artikulua famatuan esandakoari kontra eginez eta eleberri bateko heroiak autorearen izena eduki zezakeela erakutsiz (jarraian azalduko dut zein den artikulua horretan azaldu zuen teoria). Beste era batera esanda, fikziozko itun bat hitzartzea bateragarria zela autorearen, narratzailearen eta pertsonaiaren izena bat etortzearekin (Casas, 2014: 8. orr.).

Hortaz, autofikzioaren jatorria ezagutzeko, ezinbestekoa da, lehenbizi Lejeunek 1973an argitaratu zuen artikuluan azaldu zuena ezagutzea. Lejeuneren ustetan, “itun” bat hitzartzen da autorearen, testuaren eta irakurlearen artean. Itun mota desberdinak azaldu zituen eta horiek ezagutzea eta ulertzea ezinbestekoa da autofikzioa nondik datorren eta zertan datzan ulertzeko. Horretarako, hona hemen Lejeunek deskribatutako itunak azaltzen dituen taula (1975: 28. orr.):

Pertsonaiaren izena→ Ituna ↓	≠ autorearen izena	Ez da jakiten	= autorearen izena
Eleberri-ituna	1 a ELEBERRIA	2a ELEBERRIA	
= o	1b ELEBERRIA	2b ZEHAZTUGABEA	3a AUTOBIOGRAFIA
Itun autobiografikoa		2c AUTOBIOGRAFIA	3b AUTOBIOGRAFIA

Testuak itun bidezko harreman bat ezartzen du autorearen eta irakurlearen artean, autoreak irakurlearekiko konpromiso bat hartzen duelarik. Konpromiso hori desberdina izango da ezartzen den itunaren arabera, itun hori eleberri-ituna, itun autobiografikoa edo tarteko-ituna izan daitekeelarik, goiko taulan ikus daitekeen moduan.

Azter dezagun, lehenbizi, itun autobiografikoa. Ituna autobiografikoa denean, autoreak bere buruari buruz egia esango duela zin egiten dio irakurleari. Hau da, egia kontatzeko konpromisoa hartzen du. Beste era batera esanda, Lejeunen ikuspuntutik, autobiografia idaztea ez da norbaitek bere bizitzari buruzko egia kontatzea soilik, baizik eta norbait horrek egia esango duela zin egitea. Itun autobiografikoa bi printzipiotan oinarritzen da: identitate printzipioan eta egiazkotasun printzipioan. Identitate printzipioaren arabera, autoreak irakurleari erakutsi eta ziurtatu behar dio testu autobiografikoan zehar agertzen den ni hori eta liburua sinatu duen autorearen pertsona berbera direla eta, ondorioz, ni horrek dioen guztiaren erantzule dela. Hortaz, itun autobiografikoa ezartzeak autorearen, narratzailearen eta pertsonaia pertsona berbera direla dakar berarekin, hots, hirurek izen berezi berbera partekatzea. Ezaugarri onomastiko hori oso garrantzitsua da autobiografiaren eta (fikziozko) eleberriaren arteko bereizketa egiterako garaian, izan ere, gure mundua etengabe aldatuz doa eta bertan ez dugu ia erreferentzia egonkor bakar bat ere topatzen. Testuinguru horretan, gure izen berezia da, hein handi batean, gure bizitzako erreferentzia finko eta iraunkor bakarra; fikzioa ez den hori, errealitate objektibo eta egiazkoena, halakorik existitzen bada behintzat. Bestetik, egiazkotasun printzipioa dugu. Printzipio horren arabera, irakurleak berak egiaztatu dezake testuak dioena ze puntutaraino den egia/errealitate. Egia da autorearen oker egon daitekeela, kontatzen ari den errealitate hori desitxuraturik egotea, baina ziurtasunez kontatu behar du, haren egia/errealitatea baita kontatzen duena. Azkenik, itun hori betetzen dela egiaztatzeko, paratestuak paper garrantzitsua jokatzen du, aurrerago azalduko dudana bezala<sup>3</sup> (Lejeune, 1975: 29-45. orr.).

Eleberri-itunari dagokionez, Lejeunek itun autobiografikoaren kontrako gisa deskribatzen du. Askoz askatasun handiagoa ematen dio autoreari, nahi duena kontatu baitezake itun hori hitzartuz gero. Eleberri-ituna ezartzen bada, autoreak egia kontatu dezake ala ez, baina irakurleak fikzio gisa jasoko du eta ez dio testuaren egiazkotasunari erreparatuko. Eleberri bat irakurtzean irakurleak, oro har, testuarengan jartzen du arreta,

---

<sup>3</sup> Paratestua testua inguratzen duen informazioa da, adibidez, izenburua, autorearen izena, kontrazala, hitzaurrea etab. Gérard Genette-ri zor zaio *paratestu* izena (Genette, 1997: 1-4. orr.).



kontatzen den historian, eta ez autorearengan, autobiografiekin gertatzen den moduan. Orokorrean, autorea urrundu egiten da narratzailearengandik eta askotan ez dugu haren arrastorik sumatuko testuan. Egia da, hala ere, zenbait eleberritan zantzu autobiografikoak suma ditzakegula, baina autoreak eleberri gisa aurkeztu badu, irakurleak ez du eskumenik autobiografia gisa sailkatzeko (Lejeune, 1975: 29-45. orr.).

Heldu diezaiogun ostera *autofikzio* terminoaren sorrerari. Doubrobskyk Lejeunek hutsik utzitako lauki baten inguruan hausnartu zuen. Ba ote zegoen eleberri-ituna hitzartu eta fikziozko istorio horren protagonistatzat autorea bera zuen istoriorik idazterik? Lejeunek hutsik utzitako laukietako bat beteko zuen testurik idaztea posible zela erakutsi zuen eta *autofikzio* gisa izendatu zuen eta geroztik hamaika hausnarketa bideratu ditu. Horien artean, aipagarria da Manuel Albercak egindako ekarpena, azken batean, ekarpen landua izateaz gain, gure literatur sistemarengandik gertuen kokatzen den hispaniar literaturan aditua da eta, hortaz, euskal literaturako zenbait adituk, Jon Kortazarrek esaterako, haren teoriaren berri izan dutela dirudi. Albercarentzat autofikzio orok arestian aipatu ditugun eleberri-itunaren eta itun autobiografikoaren arteko itun hibrido bat hitzartzen du autorearen eta irakurlearen artean: batetik, eleberri-ituna hitzartzen du testua fikzio gisa aurkezten baitzaio irakurleari. Beste era batera esanda, autofikzioa ezin da autobiografia gisa aurkeztu egiantzekotasun printzipioa era kontzientean hausten baita. Baina, bestalde, autofikzioak badu itun autobiografikoari dagokion bigarren ezaugarri bat ere: autorearen izena/identitatea bat dator narratzaile eta pertsonaiarenarekin. Hortaz, bi itun horien tarteko itun batetik abiatuta sortzen da autofikzioa, Albercak *itun anbiguo* gisa izendatzen duena (Alberca, 2007: 64-65. orr.).

### 2.1.3. BILAKAERA HISTORIKOA: XVIII. MENDETIK POSTMODERNITATERA

Orokorrean, iritzi desberdinak daude autofikzioaren sorreraren, funtzionalitatearen eta helburuen inguruan. Hala ere, badago gailentzen den iritzi bat. Aditu eta idazle askoren ustetan, norbanakoaren kezka kolektibitateari gailentzen zaion garai hauetan, fikzioak ospea galdu omen duen garaian, irakurleak benetako historien egarri dira, mundua berreraikitze beharra dute beren buruak bertan identifikatzeko. Idazleei dagokienez, oso zaila da hedabideek zabaltzen dituzten historia liluragarrien kontra lehiatzea. Gainera, Espainian azken urteotan bizitzen inguruan jarduten duten

generoekiko aurreiritziak apaltzen joan dira (Kortazar: 2011, 87. orr.). Horrek guztiak autofikzioak literaturan bere txokoa topatzeari bide eman dio.

XVIII. mendera arte nahiko ezohikoa zen autorearen obraren barnean protagonista gisa azaltzea. Europako iraultza burgesen harira eta, bereziki, literaturan Erromantizismoaren garaian, subjektibotasuna eta artistaren irudia funtsezko lehengai bihurtzen dira obrarentzat. Laburtuz, XVIII. mendera pertsonaren arte alderdi publikoa ia erabat gailentzen zitzaion alderdi pribatuari, izan ere, orduan ni-aren irudikapena oso mugatua zegoen arau sozial, politiko eta erlijiosoengatik. Hala ere, arau horiek apurka hautsiz edo lausotuz joan diren heinean, alderdi pribatu horren irudikapena indarra hartuz joan da, autofikzioa bezalako genero berriei bide emanez (Alberca, 2007: 20-23. orr.).

Bigarren Mundu Gerraren ostean European eta Frankismoaren ostean Espainian, narrazio autobiografikoen une gorena eman zen (egunerokoak, memoriak, testigantzak etab.), izan ere, gizakiak bizitakoa, sentitutakoa eta jasandakoa lau haizeetara zabaldu beharra sentitu zuen (Alberca, 2007: 23-31. orr.). Gerra eta diktadura osteko egoera horri hertsiki loturik dago autofikzioa loratzen den garaia, hau da, postmodernitatea. Hala definitzen du Kortazarrek:

postmodernitatea utopien amaiera gisa definitu dezakegu; Modernitate berandukoaren proposamen utopikoak inork ez ditu sinisten, ez ideologiaren ez estetikaren aldetik, totalitarismo historikoaren bidetik joan baitziren utopiak. Ildo horretatik, kronologia bat planteatzen da: Bigarren Mundu Gerra amaiturik abiatzen da, demokrazia liberalaren hedapenarekin batera, politikari dagokionez (Kortazar, 2003: 12. orr.).

Hirurogeigarren hamarkadan, autoretzak nolabaiteko krisia nozitzen du, izan ere, Barthes pentsalari frantsesak autorearen heriotza aldarrikatu zuen, autoretza erromantikokoaren aurka oldartuz<sup>4</sup>. Autofikzioak, hala ere, heriotza hori ukatzen du eta, aldi berean, ni-aren garrantzia azpimarratzen. Hortaz, autorearen ez da inoiz hil eta autofikzioak haren garrantziaz ohartarazten du, azken batean, hura gabe ez litzateke obra existituko, batetik, autofikzioaren zati autobiografikoa (ezinbestekoa dena literatur mota hori gauzatzeko) ezinezkoa litzatekelako, eta bestetik, irakurketa era egokian gauzatzeko hark egindako oharra (ezkutukoak zein anbiguoak askotan) ezinbestekoak baitira mota honetako obrak irakurtzeko. Hala ere, egia da autofikzioan autorearen “autoritatea” eta

---

<sup>4</sup> Barthesen teoriaren inguruan gehiago jakiteko ikus: Roland Barthes, «La mort de l’auteur», *Le bruissement de la langue*, Paris, 1984, 61-66. orr.

oihartzuna beste modu batean agertzen direla obran, autoreak ez baitu bere ikuspegia inposatzen. Autoritate hori ironikoa eta anbigua izango dira.

Autoretzaren krisi horri erantzunez, autofikzioaren booma heldu zen hirurogeita hamargarren hamarkadan. XX. mendearen amaieran joera literario bihurtzen da, testuinguru postmodernoarekin lotura estua izanik. Zein da arrazoia? Hori ulertzeko ezinbestekoa da Mendebaldean bizitzen ari garen garai soziokulturala ezagutzea. Ikusi dugun bezala, autofikzioan ni-ak du lehentasuna, hau da, subjektibotasunak, memoria pertsonalak, barne hausnarketak eta norberaren bilaketak. Norbanakoaren aldarrikapen hori hertsiki lotzen zaio mugimendu postmodernoari. Hala ere, horrek ez du esan nahi elementu horiek berriak direnik literaturan; aurretik aipatu dugun Erromantizismoak, esaterako, subjektibotasuna, ni-aren garrantzia eta gainontzekoengandik bereizteko beharra barneratu zituen. Postmodernitateari buruz aritzerakoan, ezin utzi egun Mendebaldeko gizartean nagusi den kapitalismoa aipatu gabe. Zalduaren hitzetan, “kapitalismoak berarekin dakarren ondasun guztien merkaturatzeak literatura bera hartu du bere baitan” (2002: 44. orr.). Europan, orokorrean, autofikzioak arrakasta itzela izan du salmentei dagokienez. Autobiografiak mesfidantza sortzen zuen gizartean eta fikzioak, berriz, aspertua zeukan publikoa, nolabait esatearren <sup>5</sup>(nahiz eta, aurrerago ikusiko dugun moduan, mundu guztia ez dagoen azken puntu horrekin ados; Iban Zaldúa euskal idazlea, esaterako). Testuinguru horretan, autofikzioak obra literarioen salmenten salbatzaile gisa jardun du, batetik, autorearen bizitza pertsonalaren inguruan irakurtzea ahalbidetzen duelako (egia zein fikziozkoa izan) eta, bestetik, irudimenari bide ematen diolako, beti ere eleberri gisa saltzen direla kontuan harturik. Hortaz, irakurlea pozik eta argitaletxeak, are gehiago. Gainera, autoreak, nolabait, eskuak garbitzen ditu obra eleberria gisa aurkeztuta, izan ere, ez du esaten duenarekiko konpromisorik ez erantzukizunik hartu behar eta hori, hau da, ez konpromisorik ez erantzukizunik hartzea postmodernitatearen garai honetan oso hedatuta dagoen zerbait da.

#### 2.1.4. AUTOFIKZIO MOTAK

Autofikziozko kontaketak ez dira autobiografiak, ez egunerokoak, ez memoriak, ez biografiak, ez irudimenetik eraikitako eleberri puruak, bere horretan. Baina, aldi berean, kontakizun mota horiek guztiak hartzen ditu bere baitan, izan ere, literatura idazteko

---

<sup>5</sup> Horixe dio, gutxi gorabehera, Kirmen Uribe 2014ko ekainaren 21eko EITBko *Sautrela* literatur saioan.

modu horrek idazmolde guzti horiek onartzen ditu bere baitan (Kortazar, 2011: 87. orr.). Era berean, autofikzioa honelakoa izan daiteke: autobiografia dela dirudien eleberri bat edo eleberri gisa aurkeztu baina atzean autobiografia bat ezkutatua duen kontakizuna (Alberca, 2007: 129. orr.). Autofikzio mota desberdinei dagokienez, sailkapen ugari egin dira. Hala ere, nik hona Albercak proposatutako ekarriko dut Espainiako literatur kritikarien artean harrerarik onena izan duena baita, eta lehenago aipatu dudan moduan, gure literatur sistematik sistema horrekin baitu tratu edo kontaktu gehien.

Albercak autofikzioa “ni-aren eleberrien” taldean sailkatzen du, eleberri autobiografiko eta fikziozko autobiografiekin batera<sup>6</sup>. Autofikzioaren arloaren barruan, berriz, honako azpikategoriak sailkatzen ditu, testuaren fikzio edo errealitate mailaren arabera: autofikzio biografikoa, autobiofikzioa eta autofikzio fantastikoa. Autofikzio biografikoan, izaera autobiografikoa gailentzen zaio eleberri-izaerari. Kontrakoa egoera ematen denean, hau da, eleberri-izaera izaera autobiografikoari gailentzen zaionean, autofikzio fantastikoaz arituko ginateke. Colonnak (2012), esaterako, bertan sailkatzen ditu Danteren *Jainkotiar Komedia* eta Borgesen *El Aleph*. Azkenik, autobiofikzioa hibridazio maximoaren adierazlea da, errealitate eta fikzioaren arteko erabateko anbiguitasuna gailentzen baita bertan. Ez da batere argi gelditzen eleberri-izaera edo izaera autobiografikoa gailentzen zaion (Alberca, 2007).

#### 2.1.5. PARATESTUAREN GARRANTZIA

Liburu bat argitaratzerakoan, batetik, liburua bera iristen zaigu fisikoki eta, bestetik, argitalpen horrek berarekin dakarren ikusmira mediatikoa. Biek ala biek informazio baliagarri ugari ematen digute obrari buruz. Autofikzioa aztertzen ari garen kasuan, informazio oro zaigu baliagarria irakurketa nola gauzatu behar dugun jabetzeko, hau da, autoreak kontatzen ari zaiguna ze puntutaraino den egiazkoa eta ze puntutaraino fikziozkoa nolabait neurtzeko. Gérard Genettek (1997: 1-4. Orr.) *paratestu* gisa izendatu zituen testuz kanpoko elementu horiek. Haien funtzioa irakurlea irakurketarako prestatzea da, aurrean duen obra nola interpretatu behar duen adieraztea, hain zuzen. Esaterako, liburuaren azalean eleberria dela irakurriko bagenu, ontzat emango genuke autoreak irakurlearekin eleberri-ituna hitzartu duela eta, beraz, fikziozko istorio bat irakurriko dugula. Genettek bi paratestu mota bereizten ditu: batetik, *peritestu* gisa izendatzen

---

<sup>6</sup> Albercak “novelas del yo” deitzen die (Alberca, 2007: 64-65. orr.).

dituenak (liburu fisikoan ikus daitezkeen elementu paratestualak: azala, izenburua, eskaintzak, oharra, bibliografia, aitzinsolasa, argazkiak etab.) eta, bestetik, *epitestu* gisa izendatzen dituen izaera mediatikodun elementuak (liburuaren aurkezpenak, autoreari egindako elkarrizketak, erreseinak eta beste ekitaldi mediatiko batzuk). Gogora dezagun, gainera, Doubrovskyren *Fils* obraren atzeko azalean agertu zela lehenengo aldiz *autofikzio* terminoa. Hortaz, orokorrean paratestuaren helburua autoreak irakurlea hark aurreikusitako interpretaziorantz gidatzea bada, autofikzioa idazten duten autoreentzat are paper garrantzitsuagoa betetzen du, izan ere, elementu horiek helburu anbiguoarekin erabiltzen dituzte eta irakurleari seinale nahasgarriak bidaltzea dute mugarri. Hala ere, irakurleak liburuan ageri diren paratestu horietaz gain, testutik kanpoko beste informazio iturri batzuetara jo dezake, edo aurretiazko ezagutza ere izan dezake autorearen, haren ibilbidearen eta bizitzaren inguruan, irakurtzen ari dena egiazkoa ala fikziozkoa den determinatzerako orduan. Ondorioz, gauza bat argi gelditzen da: autofikzioa irakurtzerako garaian paratestuak egundoko garrantzia du eta ezinbestekoa izango da honen ezagutza autofikzioa era koherente batean irakurtzeko (Arroyo, 2014: 65-77. orr.).

## 2.2. EUSKAL LITERATURA GARAIKIDEA ETA AUTOFIKZIOAREN LEKUA

Lan honen helburua autofikzioa euskal literaturaren ikuspuntutik aztertzea denez, ezinbestekoa da testuingurua zein den azaltzea. Horretarako, atal honetan euskal literatur sistema laburki deskribatuko da, euskal literatura garaikidea ulertzeko gako batzuk emango dira eta tartean kritikari zein ikerlarien ahotsak arlo honetan duten pisuaz hitz egingo delarik. Amaitzeko, autofikzioaren lekua aztertuko da.

### 2.2.1. LITERATUR SISTEMA TXIKIA

Literatura sistema soziokultural gisara definitzen da. Claudio Guillén izan zen sistema hitza lehenengoz erabili zuena 1971n eta ordudanik, teoria enpirikoak eta polisistemen teoriak erabiltzen duten terminologiarekin bat etorri da<sup>7</sup>. Literatur sistema bateko kideak dira testuari adiera ematen diotenak. Euskal sistema literarioaz ari garenean, testuen

---

<sup>7</sup> M. J. Olaziregik eta M. Lopez Gasenik Even-Zoharren polisistemen teoriatik abiatuta landu dute euskal sistema literarioa. Gehiago jakiteko ikus Itamar Even-Zoharren polisistemen teoria (Tel Aviveko Unibertsitatea).

*produkzioa, bitartekaritza, harrera eta birsorkuntza* barneratzen dituen egituraz ari gara eta sistema gisa definitzen dugu, hain zuzen, elementu horiek elkarri lotuta daudelako eta elkarri eragiten diotelako (Olaziregi, 2002: 13-14. orr.)<sup>8</sup>.

Euskal literatura “literatura txiki” gisa deskribatua izan da, bai haren hiztun kopuruagatik, bai autore kopuruagatik (hirurehun inguru), bai irakurle kopuruagatik eta baita argitaratu zein saltzen den obren kopuruagatik ere. Gainera, kontuan hartu behar da euskal literatur sistema beste bi literatur sistema handiren artean (hispaniar eta frantses literaturak) kokaturik dagoela. Guzti horrek eragina du literatura bera ekoizteko moduan, baita literatura hori jasotzen den moduan ere (bai irakurleen ikuspuntutik eta bai kritikoen ikuspuntutik). Gure sistemaren kokapen horrek nolabaiteko tentsioa sortu izan du beti: batetik, euskalduntasuna mantentzearen aldeko joerak agertu izan dira eta, bestetik, literaturara aire berriak kanpotik ekartzekoak. Tentsio horren aurrean, euskal literaturaren historian jarrera desberdinak zabaldu izan dira autoreen artean: batzuek literatura nazionalaren alde egin dute, beste batzuek literatura pertsonalaren alde eta beste batzuek, aldiz, kosmopolita edo globalizatuago baten alde (Kortazar, 2013: 11-14. orr.).

Sistema horren txikia izateak, bestalde, ondorio jakin batzuk dakartza hizpide dugun gaiari dagokionez. Gure testuinguruak asko errazten du euskal autoreen biografia ezagutzea. Autore gutxi ditugu gurean eta, hortaz, ospea lortzen dutenak oso ezagun bihurtzen dira, behin eta berriro agertzen baitira hedabideetan kultur eta literatur arloko saioetan etab. Ezagunak zaizkigu eta ez da zaila haiei buruzko informazioa lortzea. Are gehiago, informazioa lehenengo eskutik ere lortu dezakegu guk geuk haietakoren bat ezagutu edota gure ezagunen baten bitartez, zailtasun handirik gabe. Horrek pisu handia du autofikziora idatzi zein irakurtzerako garaian. Autoreak badaki publikoak haren bizitzaren berri dakiela (bizitza horren ezagutza maila desberdinak egongo direla jakitun) eta irakurleak errazago detekta dezake zer den egia eta zer fikzioa. Horrek, ezinbestean, idazlearen autofikzioa idazteko era baldintzatzen du, garatu beharreko estrategia literarioa birplanteatzera eramanez. Behin teoria azalduta, lan honen alderdi praktikoan helduko zaio literatur sistema txikia izateak autofikzioan duen eraginari.

## 2.2.2. EUSKAL LITERATURA GARAIKIDEA ULERTZEKO GAKO BATZUK

---

<sup>8</sup> Gehiago jakiteko ikus: Olaziregi (2002).

Atal honetan euskal literatura garaikidea ulertzeko gako batzuk eman nahi dira. Horretako XX. mendeko literatur generoen joera aldaketa eta eleberriaren agerpen berantiarra ezagutzea ezinbestekoa da. Azken hamarkadetan, eleberriak pisu handia hartu badu ere, euskal literaturaren gailurra poetek markatu zuten lehenago. Euskal poesiak leku mitikoa hartu zuen XX. mendeko lehen erdian, baina joera hori aldatuz joan da apurka. 70eko hamarkadan saiakerak indar handia hartu zuen eta hurrengo hamarkadan horixe bera gertatu zen ipuingintzarekin. Baina 90eko hamarkadatik aurrera eleberriak hartu du nagusitasuna eta, gaur egun, euskal literatura narratzaileek markatzen dute (Zaldua, 2002: 23. orr.).

Euskararen Normalizazioaren legea atera zenetik (1982) eskoletan Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasteko arau batzuk daude, eta euskal kontaketak erdigunea hartu du euskal literaturaren sisteman, poesiari lekua jenez. [...] Nobelak ez zuen gauza handirik ekarri ordu arte, eta ekarri zuena ere oso berandu (Kortazar, 2003: 45).

Kortazarren hitzen harira, kontuan hartu behar dugu eleberria oso genero berantiarra dela euskal literaturan. Labur-labur aipatzearen, ikerlariak, orokorrean, *Auñamendiko lorea* (1897) jotzen dute lehen eleberrizat eta Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957) euskal eleberri modernoaren mugarrizat. Geroztik, lehen aldiz euskal eleberrigintzan mundu-ikuskerak ezberdinek egin zuten topo eta, ordutik aurrera, euskal eleberrigintzan mundu-ikuspegi zenbaitek elkarrekin iraun izan dute. Ondorioz, gero eta mundu-ikuspegi anitzagoa daukagu euskal eleberrigintzan<sup>9</sup>.

Bestalde, ezinbestekoa da literatur kritikak eta ikerketak literatur sisteman duen eragina aipatzea, izan ere, arlo horretan genero baten aldeko apustua egiteak gainontzeko generoen presentzia eta prestigioan eragin zuzena baitu. Euskal literaturaren kritika eta ikerketa garaikideari dagokionez, 80ko hamarkadan poesia aztertzen aritu ziren literatur kritikari eta adituak, baina XXI. mende hasierara bitartean joera aldatu egin da. Orain kontagintza aztertzeke joera gailendu da, eta bereziki eleberrigintzari eman zaio pisua, gainontzeko generoei nolabait bizkarra emanez. Gainera, ez dira bakarrik kritikariak eta unibertsitate mailako ikerlariak genero horri lehentasuna eman diotenak. Literaturaren erakundetze bidean ere, halaxe jokatu da, baita sariketetan ere (Retolaza, 2007: 25-26. orr.). Zer esanik ez, argitaletxeek testuinguru horretan oinarrituta gauzatzen dituztela euren argitalpenak, eleberriaren aldeko apustua eginez. Dena den, egoera hau ez da soilik

---

<sup>9</sup> Euskal eleberriaren aitzindariak buruzko informazio gehiago nahi izanez gero ikus: Lasagabaster (1981).

euskal literaturan eman den kontua, gainontzeko literatur sistemetan, oro har, halaxe gertatu da, gaur egun eleberria gainontzeko genero literarioei gailentzen zaielarik.

Bestalde, gaur egun, euskal literaturan sortzaileek eta literatur kritikariek generoekiko jarrera desberdina dute: batetik, sortzaileek generoen mugak lausotzearen alde egiten dute eta, bestetik, kritikariek, orokorrean, generoen araberako sailkapenak eta irakurketak egin ohi dituzte (Retolaza, 2007: 25. orr.). Ondorioz, anbiguotasun horrek narratibaren modalitate gisa zein azpigenero gisa sailkatzea ekarri du eta, horregatik, euskal literaturan kritikariek, oro har, ez dute gai honetan sakondu edo oso gutxitan sailkatu dute obrarik autofikzio gisa. Hau da, generoaren araberako ikerketak egite horrek zerikusi zuzena du autofikzioa, oraindik ere, euskal literaturan aztertu ez izanarekin, lan honen atal praktikoa egiaztatuko den moduan.

### 2.2.3. AUTOFIKZIOARENTZAT KLIMA APROPOSA

Gaur egungo literaturan, baita euskal literaturan ere, benetakotasunaren bila jotzeko joera dago; beste era batera esanda, testuak errealitatez bustiz egiaren gose den irakurlearengana heltzeko helburua agertzen dute euskal idazleek ere. Baina joera hori mugimendu orokorrago batetik dator, esaterako, telebistan azken urteotan *reality show* delakoan gorakadatik, jendea benetako istorioen bila baitabil eta autofikzioa egoera horretaz baliatu da, izan ere, testuinguru hori ezin hobea da autofikzioa gure apaletara ekartzeko.

Lehenago aipatu dugun moduan, eleberria da gaur egun gure sisteman gailentzen den generoa. XX. mendean jasan duen eraldaketa etengabearen ondorioz, bizitzaren ispilu gertatu ordez, irakurtzen ari den irakurlearen ispilu bihurtu da. Horregatik, sarritan idazleak erabiltzen dira istorioak gorpuzteko (Aldekoa, 2001: 34. orr.). Gaur egun, identitatea (norbanakoa zein kolektiboa) zalantzan jartzen den garaia izaki, indarra hartu dute oroimenaren bidez identitate hauskor eta zalantzakor hori finkatzeko saioek. Horrexegatik jo ohi dute idazleek gertaera historikoak zein politikoak erreferentziatzat hartzera (Gutierrez, 2001: 154. orr.). Honela, eleberri horietan pertsonaien oroimenek berebiziko garrantzia izan ohi dute, iragan baten eraikuntzaren bila, baita norberaren bila ere zenbait kasutan, aurrerago ikusiko dugun moduan.

Harkaitz Cano idazleak bere partetik, nobela krisian dagoela azpimarratu du (Gutierrezen, 2001: 159. orr.), gero eta dietario, aforismo, eguneroko eta antzeko liburua



gehiago argitaratzen direla kontuan harturik. Aldi berean, generoaren mestizajearen garaia dela dio eta horrek liburu bat sailkatzea gero eta zailagoa egiten duela.

Honenbestez, Zalduaren hitzak ekarriz amaituko dut atal hau, ezin hobeki borobiltzen baitu azpimarratu nahi izan dudana ideia, hau da, autofikzioarentzako giro ezin aproposagoa dagoela egungo euskal literaturan:

Finean, honek guztiak ez du esan nahi generoaren arteko mugak lausotzen ari direla baizik, eta hori da gure garaiko literaturaren ezaugarri nagusietako bat, nagusia ez bada (Zaldua, 2002: 43. orr.).

### **3. AUTOFIKZIOA PRAKTIKAN**

Atal honetan autofikzioak euskal literaturan izan duen harrera eta praktika aztertu nahi izan dira. Horretarako, euskal literaturan autofikzioaz esplizituki mintzatu eta beratu praktikan jarri duten Zaldua, Uribe eta Meaberen iritziak bildu eta beren autofikzio gisa sailkaturiko obra bana aztertu da, arestian aipatu gisa.

#### **3.1. EUSKAL LITERATURAN IZAN DUEN HARRERA**

##### **3.1.1. IDAZLEEN IKUSPUNTUTIK**

Autofikzioak euskal idazleen artean izan duen harrera aztertzeko Zabalak *Berria* egunkarian argitaratutako artikulu batean oinarritu naiz (ikus bibliografia). Lanaren sarreran aipatu den moduan, dibulgaziozko euskarrietara jo behar izan da ezinbestean oraindik ez baita gai honi buruzko teorizazio sakonik egin euskal literaturan. Jarraian, artikuluan zehar bildutako hitzak aurkeztu eta aztertuko dira.

Hasteko, lehen begiradan nabarmena da hiru autoreek iritzi desberdina dutela autofikzioaren inguruan: Uribe autofikzioaren apologista gisa deskriba daiteke; Zaldua, aldiz, autofikzioaren aurkari goren gisa. Meabek, bien bitartean, autofikzioak pertsonalki (eta noski, profesionalki) ekar diezazkioken onuren inguruan hausnartzen du. Testuingurua gainera deskribatu ostean, autore bakoitzaren iritzia arretaz aztertuko da.

Uribe autofikzioaren praktikatzaile nagusia da euskal idazleen panoraman eta lehenago aipatua izan den puntu garrantzitsu bat azpimarratzen du: autofikzioa

autobiografiatik bereizi behar dela eta autofikzioaz aritzeko idazleak egiten ari denaz kontziente izan behar duela. Uriberen iritziz, autofikzioa sinesgarritasuna bilatzeko erabilitako baliabidea da, hau da, obraren alderdi autobiografikoak inplikatzeko duen benekotasunak sinesgarritasun hori dakar. Gainera, idazmolde hori erabiltzean idazlea busti egiten dela azpimarratzen du. Bestalde, zenbait gauzen inguruko kritika egiteko tresna gisa ere ikusten du, esaterako, autoretzaren inguruko kritika egiteko, izan ere, haren ustetan irakurlea idazlearengana gerturatzen du autofikzioak, autorea irakurlearen mailan jartzen delarik, egiletasun klasikoa zalantzan jarriz. Uribek autofikzioa fikzio hutsarekiko edo konbentzionalarekiko erreakzio gisa ikusten du. Are gehiago, bere iritziz ezin dugu autofikzioa besterik gabe kritikatu: haren erabilerak zentzurik badu eleberrian, hau da, formaren eta edukiaren artean oreka egotea lortzen badu, zilegi da berau erabiltzea (Zabala, 2015).

Bestalde, Meaberen iritziz, autofikzioa euskal literaturara heldu izana aurrerapauso bat da. Positiboa iruditzen zaio tradizioz gutxietsia izan den genero autobiografikoarekiko interesa piztea eta gizartean bizitza pribatu zein intimitateari buruz izan diren aurreiritziak baztertzen ari garen seinale gisa hartzen du. Meaberen ustetan, idazleak bere burua anbiguotasun kalkulatu batez aurkezten du, estrategia jakin bati jarraiki. Hortaz, autofikzioa Meaberentzat ez da gardentasuna, gardentasun itxura baizik, eta horrek irakurlearengan deserosotasuna eragin dezakeela uste du, ez baitu jakingo zehazki zer den egia eta zer asmakuntza. Meabe, beraz, kontziente da autofikzioak dakarren arriskuaz. Bere ustetan, idazlearen aitortza horiek ez dute zertan irakurlearen interesekoak izan eta horretan datza autofikzioaren aldeko apustua egitearen arriskua. Dena den, idazle bizkaitararentzat zilegi da egilearen esperientziak lehengai narratibo gisa erabiltzea eta, gainera, norberaren bizitzan oinarrituriko kontakizun bat sortzeak norbera aberastu dezake barne-ezagutza sakon batera eramanez, ez baita jakiten errealitatearen eta fikzioaren arteko nahasketa horrek nora eramango zaituen (Zabala, 2015).

Zaldua *Autofikzioaren aurkako manifestuaren* idazlea dugu (ikus bibliografia). Hortaz, aurreikus dezakegu ze iritzi duen gaiaren inguruan. Pentsa, “birus gaizto” ere deitzen dio blogean publikatutako manifestuan (Zaldua, 2014). Jakitun da gainontzeko euskal idazle eta kritikarien iritziez eta horien guztien (edo ia guztien) kontra agertzen da. Zalduaren ustez, «“egotismoa” sustatzen duen gizarte “turbokapitalista” baten premiei erantzuten die autobiografia eta autofikzioen gorakadak» (Zabala, 2015). *Manifestuan* (Zaldua, 2014) Barthesen “autorearen heriotza” pronostikoaz mintzo da, berau bete ez dela adieraziz. Zalduaren ustetan autofikzioak idazlearen irudia puztea ekarri du eta,

horregatik, “selfie literatura” gisa egiten dio erreferentzia erdeinuzko tonuaz, idazlearen marketing kanpaina gisa ikusten baitu. Beste literaturetatik edatea heldutasun zantzutat jo izan bada ere, Zalduarentzat autofikzioaren etorrera ez da heldutasunaren seinale. Kalitate eskaseko literaturatzat jotzen du eta Uribek autofikzioari buruzko *Sautrela* saioan (ikus bibliografia) esandakoaren harira argudiatzen du, autofikzioaren bitartez benetakotasunaren bila abiatzen diren idazleak eurak direla fikzioaz nekatuta daudenak eta ez irakurleak. Egileek egiarekiko leialtasunaren bila fikziozko elementuak txertatzeari uko egiten diotela azpimarratzen du eta horrek inongo interes literariorik gabeko kontakizunak ekar ditzakela, eta horixe da, hain zuzen, Zaldua gehien kezkatzen duen auzia: literaturaren kalitatea. Autofikzioak egilearen alferkeria puze du haren ustetan, dokumentazio lana murriztu eta, batzuetan, guztiz ezabatzeraino, azken batean, egilearen beraren bizitza da gai nagusia eta inork baino hobeto menperatzen du. Gainera, egileak bere buruaren erretratu negatiborik egingo ez duela ohartarazten du Zalduak. Horren harira, Uribe eta Meaberen autofikzioetako pertsonaiak esplizituki kritikatzeko dituzte Saizarbitoriaren fikziozko pertsonaiekin alderatuz, izan ere, Zalduaren iritziz, egiazko gordinenak esateko hobe da fikziozko pertsonaia batengan zentratzea, gure buruaz aritzen garenean irudi positibo eta interesgarria eskaintzeko joera baitugu, alderdi makurragoak albo batera utziz (Zabala, 2015). Bada Zaldua bereziki ernegatzen duen beste kontu bat ere: idazleek kode desberdinen arteko nahasketaz baliatuz, egia eta egiantzekotasuna nahasten dituzte eta, ondorioz, irakurleari iruzur egiten diote. Beste era batera esanda, eleberri-ituna edo itun autobiografikoa hitzartu ordez, Albercak itun anbiguo gisa deskribaturikoa hitzartzen dute eta, Zalduaren iritziz, horrek idazleari soilik egiten dio mesede, idazmolde horrek irakurleari etengabeko zalantza sortzen baitio, egia zer den eta fikzioa zer den zalantzan jarriz uneoro. Baina, bestalde, ez du uste autofikzio oro txarra izan behar denik, bai ordea idazmolde horrek berezko arriskuak dakartzala aurretik deskribaturiko argudio guztiak direla eta. Hala ere, ez dezagun ahaztu «Munduko autofikziogileak, arren, ez zaitezte elkar! Eta, batez ere, ez jarraitu ugaltzen...» esanaz amaitzen duela blogean publikatutako *Manifestua*, autofikzioaren eta autofikziogileen gainean duen iritzia argi baino argiago utziz.

### 3.1.2. ZER ESAN DA LITERATUR KRITIKAN?

Lanaren alderdi teorikoan aipatu den moduan, literatur kritikak pisu handia du genero baten aldeko apustuan eta, hortaz, praktikan zer gertatzen den aztertu nahi izan da atal

honetan. Honenbestez, *Armiarma* proiektuko Kritiken Hemerotekara jo da aztertu diren hiru lanen inguruko kritikak biltzeko. Orokorrean, esan daiteke obra horiei dagozkien kritikek dibulgaziozko helburua dutela, oro har; hau da, ez direla kritika espezializatuak. Ez dezagun ahanzi kritika egiten den erak eragina izango duela obraren edo genero jakin baten bilakaeran. Hona hemen aztertutako laginaren aurkezpena, bertatik lortutako informazioa eta ateratako ondorioak:

Hemeretzi kritikariren hogeita bi kritika aztertu dira guztira (lau kritika *Idazten* liburuari, hamar *Kristalezkori* eta zortzi *BNBri*). Orokorrean, kritikariek ontzat ematen dute eskuartean duten liburua eleberri bat dela eta gutxi dira obra horien aparteko izaerari *autofikzio* deitzera ausartzen direnak, hain zuzen ere, hogeita bi kritiketatik zortzi kritiketan baino ez baita ageri *autofikzio* terminoa esplizituki. Are gehiago, aipagarria da *autofikzioa* esplizituki ageri den zortzi kritika horien artean, bi kritika pertsonak berberak idatziak izan direla. Hortaz, hemeretzi kritikari horietatik zazpik besterik ez dute *autofikzioa* erabili eskuartean ditugun obrak deskribatzeko. Esanguratsua, inondik ere. Gainontzeko kritikariak errealitatearen eta fikzioaren arteko mugez aritzen dira, garrantzia kentzen diote generoa edo kontakizun mota zein den zehazteari obraren beste ezaugarri batzuei lehentasuna emanez edo, sinpleki, ez dute obra inongo genero edo azpigerorearen barnean sailkatzen. Hona hemen adibide batzuk:

*Itzultzen ari dela...* liburuaz:

idazlea bera bilakatzen da bere kontakizunen protagonista [...]. Izenburuaren luzeak adierazten duenez, idazlearen beraren biluzte emozional erabatekoa zertu du literatoak. Zaldua idazlearen zuri-beltzeko erradiografia gardena baita. Pertsonaien jiteak Zalduari berari baitagozkio (Asurmendi, 2013).

*BNB...* liburuaz:

*Bilbao-New York-Bilbao* autofikziozko liburu bat da, egilearen izen bereko narratzailea duena, eta baita anglosaxoniarrak *faction* deitzen dutena ere (fact + fiction), hots, nagusiki benetako gertakariak (historikoak edo garaikideak) eta fikziozko batzuk nahasten duen generokoa, egileak berak aipatu duenez (Erro eta Zaldua, 2009).

*Kristalezko...* liburuaz:

Zer inporta dio fikzioa, autobiografia, auto-imitazioa edo autofikzioa den? (Goia, 2013).

Niri bost axola zait (esateko modu bat da) Miren Agurrek kristalezko begia duen edo kristalezko begiarena asmakizuna den, liburuan berdin funtzionatzen duelako ongi. Kontua ez baita hau edo beste *edukitzea*, ez bada hori literatura bilakatzen jakitea (Garro, 2013).

Honenbestez, ondoriozta dezakegu kritikaren balantza eleberrirantz makurtzen dela (irakurritako kritika gehienek ontzat ematen baitute hori dela eskuartean duten obrari dagokion generoa) eta, hortaz, gutxik egiten dutela obraren generoaren edo horren berezitasunaren inguruko hausnarketa landuagorik, kritikarien erdiak baino gutxiagok *autofikzio* terminoa erabili duelarik. Horrek, argi eta garbi, autofikzioaren hedapenari eta haren azterketari negatiboki eragiten dio, kritikariak, orokorrean, ez baitute autofikzioaren inguruan gogoeta egiteko jarrerarik azaltzen. Ondorioz, esan daiteke literatur kritikaren balantza eleberrirantz itsuki makurturik egotea autofikzioaren lekua gure literaturan ingurukoetan bezain finkatua ez egotearekin zuzenki erlazionatuta dagoela.

### 3.1.3. LITERATUR SISTEMA TXIKIA IZATEAREN ALBO-KALTEAK

Egiaztatu ahal izan denez, oso iritzi kontrajarriak zabaldu dira autofikzioaren inguruan eta aurreko atalean ikusitako muturreko bi iritziak ekarri dira atal honetara, hau da, Uribe eta Zalduarenak, horiek euskal literatur sistemaren markotik aztertzeke. Bi iritzi horien atzean, literatura ikusteko bi molde desberdin daudela argi dago: Zalduarentzat obra batek estilo literario originala eta esanahi literarioa izatea ezinbesteko osagaiak dira, literaturaren molde tradizionalerik helduz, horiexek sortzen benetako literatura eta ez egun zabaltzen ari den “selfie literatura” eskasa, blogeko manifestuan adierazi duenez (Zaldua, 2014). Uriberen ustetan, aldiz, gure literatura txikiak eboluzionatu egin behar du eta kanpotik datozen molde berriei eutsiz indarberritu, baita alderantziz ere, euskal literatura beste literaturentzat eredu izan daitekeela pentsatzen baitu (Kortazar, 2013: 12. orr.). Bi jarrera desberdin horien atzean, euskal literaturan betidanik existitu diren bi pentsamoldeen isla garbia ikus dezakegu: tradizioari eustearena eta ingurukoengandik ikasiz handitzearena. Ziurrenik munduko gainontzeko literatur sistemetan ere sortuko da halako eztabaidarik baina euskal literaturan, sistema txikia izaki, halako eztabaidak behin eta berriro errepikatzen dira historian zehar eta horren gai subjektiboa izanik, ez da sekula

lortzen adostasun batera heltzea<sup>10</sup>. Hortaz, aurreikus daiteke hemendik aurrera ere, eta tradizio/berrikuntza ikuspegitik begiratuta, autofikzioaren inguruko bi ikuspegi desberdin horien arteko talkak bere horretan jarraituko duela.

Baina gure literatur sistemaren tamainak badu beste eraginik ere aztertzen ari garen idazmoldeari dagokionez. Aurretik azaldu den moduan, oso idazle gutxi ditugu gurean eta ezagunenak denontzat dira ezagunak. Aztertutako hiru obretatik Meaberena denez intimoena, horixe bera ekarriko da adibide gisa oraingoan. Meabek nolabaiteko autoezagutza baterantz bideratzen du *Kristalezko begi bat*. Idazleak bere alderdirik pribatuena erakusten dio irakurleari, baina aldi berean publiko egiten du argitaratzen duen unetik. Hortaz, bere barrenak publikoki erakusteko nahi argi bat ikus daiteke, baina bestalde, ezin ahaztu Zalduak *Berriako* artikuluan esaten duena: nor bere buruaz hitz egitean irudi positibo eta interesgarria aurkezteko joera dugula (Zabala, 2015). Horrek erakusten du Meabek esker onez hartu duela autofikzioa, irakurlearekin itun anbigua hitzartuz, fikzioz mozorroturiko egiak kontatzeko baliagarri izan baitzaio. Beste era batera esanda, bere publikoa berez txikia dela jakinda (euskaraz irakurtzen duen kopuru murrizta kontuan hartuta), badaki figura ezaguna dela eta, are gehiago, badaki bere ezagun askok irakurriko dutela bere lana. Hortaz, alde batetik bere konturik barnekoenak kontatzeko erabakia hartu du, erabaki arriskatua hartu ere, baina baita nolabaiteko segurtasun neurri bat ere hartu du itun anbigua hitzartzerakoan. Honekin ondorioztatu nahi da autofikzioaren funtzionamendua apur bat berezia dela euskal literaturan, nolabait esatearren, denok ezagutzen baitugu elkar. Hortaz, badago bizipen autobiografikoak lantzeko interes bat baina era berean, oraindik ere beldur handia dago publikoaren aurreiritziekiko eta egoera horren aurrean autofikzioa aukera ona da nor bere kontuak era babestuago batean kontatu ahal izateko.

### 3.2. AUTOFIKZIOAREN ARRASTOAREN ATZETIK

Azken atal honetan adibide gisa hautaturiko hiru obren paratestua aztertuko da bertatik ze informazio lortzen den ikusteko eta horrek irakurketarengan duen eragina balioztatzeko. Horretarako, *Paratestuaren garrantzia* izeneko atalean aipaturikoak hartu dira kontuan, hau da, bi paratestu mota daudela; batetik, liburu fisikoan aurkitu daitekeen informazioa (peritestua) eta, bestetik, liburutik kanpo topatu daitekeena (epitestua). Atal

---

<sup>10</sup> Gogoan izan Orixek Txillardegiren, lehen euskal eleberrizko existenzialistaren idazlearen, eta korrante berritzaileen aldeko gainontzekoen inguruan esandakoak. Ikus: (Orixe 1954: 100-102 orr.).

honetan obra horien elementu peritestualak aztertu dira bereziki. Elementu epitestual gisa literatur kritika gutxi batzuk ikertu dira, lanaren laburtasuna dela eta.

Ezer baino lehen, komeni da aipatzea hiru obretatik bi (*Kristalezko* eta *BNB*) eleberri gisa aurkeztuak izan direla eta hirugarrena, aldiz, ipuin liburu gisa (*Idazten*). Horrek esan nahi du irakurleak, beste informaziorik jaso ezean, obra horiek eleberri-ituna hitzartuta irakurriko duela eta horrek, argi eta garbi, haren irakurketa baldintzatuko duela. Dena den, obra horietan beste elementu berezirik topatu izan ez balitz, ez ziratekeen azterketa honetara ekarriko. Hortaz, jarraian obra horiek autofikzio gisa sailkatzera daramaten elementu peritestualak aztertuko dira.

Hiru obren azala, kontrazala eta hasieran txertatu dituzten aipuak ikuskatu dira, baita liburuak beren osotasunean aztertu ere. Gainera, zenbait kasutan, literatur kritika batzuk hainbat gauza argitzen lagundu dute. Jarraian, obraz obra ateratako informazioa aurkeztuko da:

#### **ZALDUAREN *Idazten*:**

Lehen begiradan, azalari erreparatuta irudi iradokitzaile batekin egiten du topo irakurleak: idazle bat liburuaren beraren izenburua idazten. Gogoan izan idazleak idazteko prozesuaren inguruko ipuinak eta idazleek izaten dituzten kezken eta bizipenen ingurukoak kontatzen dizkigula bertan. Bide batez, autoerreferentzialtasuna ikus dezakegu bertan.

Ondoren, liburuaz zabaltzean, hiru aipu daudela ikus daiteke. Hiru obrek dituzte, hain zuzen ere, hiru aipu, baina, zalantza barik, Zalduaren aipuak dira korapilatsuenak edo nahasgarrienak, autofikzioa egiteko modua ere halakoxea baitu. Aipuak nahasgarriak badira ere, eleberri-itunak itsututako irakurleak, autofikzioaren zantzurik atzeman ez badu ere, horien atzean zerbait ezkututzen dela igarriko luke. Autoreak helburu jostari batekin ekarri dituela argi dago, irakurle aktibo baino aktiboago bat nahi du, haren lana ulertzeko ahalegin berezia egin behar duena. Bestela ere, edonork irakur dezake ipuin sorta hori, baina idazlea egiten ari den jokoa ulertzen duenak besterik ez du behar bezala gozatuko ipuin bildumaz. Hona hemen aipuetako bi (esanguratsuenak nire lanari dagokionez):

Ez nazazu ni bila liburu honetan. Blanchotek esan du idazlea “hiltzen” dela bere idazkera gauzatzen den neurrian. Espazio literarioan sartzen gara, eta dena zuria da, dena posible da.

Nik, nahiago baduzu, besteren autobiografiak idatzi ditut.

Antonio Tabucchi

Egiazki, inork ez luke idazle batekin endredatu behar, baldin eta ez badu haren liburuetako batean agertu nahi, egunen batean. Harreman hori zurgin batekin edo sarrailagile batekin izatea da egokiena, arazoak albo batera uztearren.

Richard Ford

Bide batez, komeni da azpimarratzea bi idazle horiek autobiografia eta autofikzioaren arteko mugan kokatzen direla haien obretan. Eta testuartekotasun horren bitartez, autoreak hasieratik onartzen du autofikzioa idazteak arazo bat sortzen duela. Bestalde, testuari erreparatzerakoan, Zalduaren izena esplizituki agertzen dela antzeman daiteke. Ez da kasualitatea gainontzeko bi obretan ere autoreen izenak agertzea. Hiru idazleek, fikzioz mozorroturiko kontaketa autobiografikoa egiten dutenez, obra jakin baten idazketa prozesuaz mintzatzen dira, azken batean, hirurak baitira idazleak bizitza errealean. Hortaz, ez da kasualitatea eskuartean ditugun hiru obretan idazketa prozesu bat burutzeko pausuak kontatzea. Honelaxe egiten dio Zalduak erreferentzia bere buruari *Idazten* liburuan:

Nire azkeneko nobelan dago dena, eta gehiago, norbaitek interesa balu. Jakina, fikzionatzean ñabardura batzuk aldatu nizkion gertakariari, protagonisten izenetatik hasi, eta haien deskribapen fisikoarekin jarraituta. [...]Baina ezin izan nuen gertalekua aldatu (Zaldua, 2012: 118. orr.).

### **MEABEren *Kristalezko*:**

Meabek elementu peritestuaren bidez zuzenean ematen du fikzio eta errealtatearen arteko nahasketaren berri, hau da, esplizituki adierazten dio irakurleari zerekin topo egingo duen, Zalduak ez bezala, esaterako. Horren adibide da *Kristalezko*ren kontrazala:

Emakume baten mintzoa adituko duzu liburua zabaltzeaz batera [...]. Pintoreak autoerreturatua margotzen duen gisan idatzi du Miren Agur Meabek nobela hau [...]. Errealtatea eta fikzioa josiz eta uztartuz sortutako kontakizuna da [...].



Meabek ere, bestalde, hiru aipu gehitzen ditu obraren mamiari heldu aurretik. Hona hemen lan honentzat aipagarriena den aipua, beste behin ere genero autobiografikoa zein autofikzioa landu duen autore batena, hain zuzen:

Eta denok bagara fikzioaren sortzaileak? Eta denok asmatzen badugu etengabe gure bizitzaren historia? (...) Uste nuen gure bizitzaren historia geurea dela, nahi dugun moduan eraikitzeko, mundu errealak ezarritako mugen barruan, edo baita horien aurka joanda ere...

J. M. Coetzee

Aipu horren bitartez idazleak fikzioaren eta errealitatearen arteko mugen inguruan hausnartzera bultzatzen du irakurlea, hark ere hausnarketa hori gauzatu baitu obra idazterakoan. Nolabait, berak egindakoa irakurleak berak egitea nahi du, ziurrenik, irakurriko duena hobeto uler dezan, idazlea bera eta sortu duen obra hobeto uler ditzan. Are gehiago, obran bertan, amaiera aldera, honako pasarte hau aurki daiteke, non idazleak haren helburuak ezin era argiagoan azaltzen dituen:

Pertsonaia ere bihurtu naiz orriotan, ezinbestean: ni neu izanik, ez naiz neu erabat. [...] Aitorpen biografiko egiazkoa bezain iruzurtia eraiki dut, hain da meharra gertatuaren eta asmatuaren arteko bana-lerroa: pintura bat, [...] errealitatearen kopia leiala izanik ere, ez da errealitatea bera. Kristalezko begia ere ez da kristalezkoa. [...] izan, berezitasun bat da, akats fisiko bat besterik ez, duena baino gora handiagoa esleitu diodana, interes literarioak eraginda. Ez gaitezen engaina. Hitzez hitz sinetsiko al duzu kontatu dizudan guztia? (Meabe, 2013: 183-184. orr.).

### **URIBEren *BNB*:**

Uriberen obran ere, kontrazalean nahiko argi azaltzen zaio irakurleari zerekin egingo duen topo. Hona hemen zer dioen:

[...]hegazkin bidaia bat da [...] eleberri hau. Hiru belaunaldiren historia kontatzen zaigu: aiton-amonei dagokien gerraurrekoa, gurasoen sasoiko frankismoarena, eta idazlearena berarena. [...]Fikzioaren eta errealitatearen arteko mugan jolasean, hainbat istorio, oroitzapen, gogoeta erabiliko du egileak, baita nobelaren sortze-prozesua azaldu ere...

Azpimarratzekoa da kontrazalean bertan eleberri gisa sailkatzen dela eta, aldi berean, fikzioa eta errealitatearen arteko mugak esplizituki aipatzen direla. Hortaz, Zalduaren asmo jostariarengandik urrun, Uribek irakurleari bidea erraztu nahi dio, irakurriko duena nolakoa izango den prestatzeko.

*BNB*ko hasieran topatzen ditugun aipuei dagokienez, ez dira aurreko bi kasuetan bezain esplizituak. Hona hemen lan honetan lantzen den gaiarekin lotura handiena duena:

Esan zeure-zeureak diren kontuak, esan, horrek du benetan garrantzia. Ez lotsatu. Gainontzeko guztia arrunta da, egunkarietan ageri dena.

Elias Canetti

Aipu horren bitartez, idazleak bere barneko kontuak txertatu dituela pentsarazten dio irakurleari, hau da, gauza intimo edo errealik topatuko duela testuan zehar.

Behin hiru obren peritestua aztertuta, badago aipatu behareko beste kontu bat. Lehenago euskal literatur sistemaren tamaina aztertu da, baita idazle kopuru urria etab. ere. Kontua da autofikziozko obra bat irakurtzerakoan irakurleak autoreari buruz duen aurretiazko ezagutzak garrantzi handia duela eta kalte ere egin diezaiokeela irakurketari. Azken baieztapen hori ulertzeko, hona hemen Anjel Lertxundik Meaberen *Kristalezko* obrari buruz egindako kritikan azpimarratzen duena eta baita Zalduak egiten duen aportazio txiki zein zehatza ere:

Ertz askotako debate politak sortzen ari dira Miren Agur Meaberen azken liburuaren harira. Tartean, generoari buruz. Nobela bat da? Nobela gisa irakurri nuen nik, nahiz Meabe hurbilegi daukagun testuarekin distantzia hartzeko. Jarraitzekoa izango da liburuak izango duen harrera beste hizkuntzetan eta Meabe ezagutzen ez duten tokietan. Testua egongo da biluzik, testua baino ez. Baina adituek baliote ere ez dela nobela bat, irakurleoi bost. Literatura da. Letra larriz (Lertxundi, 2013).

Ados: idazlea ezagutzea, literatura horren autobiografikoaren kasuetan, traba izan daiteke, zer esanik ez (Zaldua, 2013).

Nolabait esatearren, autorea ezagutzeak idazlearen asmo jostari hori zapuztu dezake, azken batean, idazlearen bizitzaren berri izanez gero, errazagoa da zer den egiazkoa eta zer asmakuntza hautematea eta horrek, hein batean, autofikzioaren berezko xarma

ihartzen du. Horregatik, pentsa liteke autofikzioak ez duela horren ongi funtzionatzen euskal literatur sisteman, neurri batean behintzat. Egia da literatur sistema handietan ere arazo hori ematen dela autorearen oso ezaguna den kasuetan, baina kontua da euskal literaturan horren autore gutxi izanda errazagoa dela denak, edo gehiengoaren behintzat, ezagutzea, eta horrek autofikzioaren grazia era orokorrago batean kaltetu lezakela nolabait. Hala ere, literaturaren modalitate hori ongi menderatuz gero eta idazle trebea izanik, ziur badagoela muga hori gainditzetik. Dena den ez dago dena autorearen esku, azken batean, irakurlearen jarrerak eragin handia du irakurketan, aukeratzen duen itunak irakurketa hori determinatzen baitu.

#### **4. ONDORIOAK**

Azterketa honen ostean, argi gelditzen da oraindik ere euskal literaturan oso gutxi aztertu den gaia dela autofikzioa. Zeresanik ez oso gutxi igaro direla gaiaren inguruko iritzia ematek edota idazmoldea bera gauzatzetik autofikzioa maila teoriko batean aztertzerantz. Zentzu horretan, oso urrun gaude inguratzen gaituzten literatur sistematan egin den lanketatik: bai hispaniar literaturakotik eta, zeresanik ez, frantses literaturan egin den ibilbide luzetik. Bibliografia bila literatura horietara jo behar izana oso esanguratsua da.

Gogora ditzagun, hortaz, autofikzioak euskal literaturan bizi duen egoera baldintzatzen duten elementuak. Batetik, oraindik ez du nahikoa interes literariozko piztu, izan ere, literatur kritikan eleberriari ematen zaion pisuak eta argialetxeen eleberriekiko interes komertzialak eragin zuzena du genero baten aldeko apustuan eta, momentu honetan, apustu hori ez da autofikzioaren aldekoa. Hala ere, aztertu ditugun hiru obretan egiaztatu ahal izan dugu gurean ere badugula autofikziozko obrarik. Hortaz, gure liburategietako apaletan gero eta autofikziozko obra gehiago topatzen goazen heinean, iritsiko da momentua non euskal kritikari eta literatur ikertzaileek gai hau sakonago ikertzen hasiko diren. Oraingoan, dena den, ikusi dugu denetarik iritziak daudela eta asko kontrajarriak euren artean.

Bestalde, gure literatur sistemaren tamainak eragin zuzena du autofikzioaren garapenean, izan ere, horrek beste zenbait kezka abstraktuago izatea dakar: esaterako, egun bizirik dirauen molde tradizionalagoen aldeko eta molde horiek berritzearen aldeko apustuen arteko talka, betierekoa izango den eztabaida dirudiena. Horrek, finean,

eskuartean dugun autofikzioaren inguruko oso iritzi desberdinak hedatzea dakar, baina ikusi ahal izan dugun moduan, autofikzioa sutsuki kritikatzeko duenak ere (Zalduak, kasu) landu du idazmoldea.

Azkenik, autofikzioaren irakurketari dagokionez, ezin dugu ahaztu literatur sistemaren tamainak idazlea irakurlearengana asko gerturatzeko duela eta horrek irakurketa baldintzatzen duela, nolabait, idazlea ezagutzeak autofikzioaren xarma hori apur bat zapuzten duela, fikziozko elementuak zeintzuk diren detektatzea errazten duelako. Hala ere, ezin dugu aiantzi paratestuak jokatzen duen rola, izan ere, ezinbestekoa da horri jaramon egitean irakurketa autoreak proposatu bezala gauzatu eta autofikzioaz behar bezala gozatzeko.

Amaitzeko, etorkizunari begira hausnartuz, aurreikus daiteke gero eta izen handiagoa izango duela gure literaturan ere, inguruko literatur sistemetan gertatu den moduan. Egia da mesfidantza sortu izan duen genero batetik datorrela (genero autobiografikotik) eta fikzioa errealitatearekin nahasteak, neurria zehazki zein den zehaztu gabe, nahastu egiten duela irakurlea. Baina, izango da gaur egungo gizartearen interesak direla, azkenean autofikzioak arrakasta izatea lortzen duela, ikusi bestela Vila-Matasek hispaniar literaturan izan duen oihartzuna, esaterako. Ondorioz, esan genezake euskal literatura apurka hurbiltzen ari dela autofikzioaren arorantz, abiadura hori denen gustukoa ez bada ere. Baina, orain arte euskal literaturaren historian gertatu den moduan, apurka, baina beti goaz aurrera literaturako alor desberdinak geureganatzen.

## BIBLIOGRAFIA

- ALBERCA SERRANO, Manuel (2007): *El pacto ambiguo: de la novela autobiográfica a la autoficción*. Biblioteca Nueva: Madril.
- ALDEKOA, I. (2001): “Euskal narratibaren azken norabide batzuk” in URIBE, K. (ed.) (2001): *Azken aldiko euskal narratiba: sortzaileak eta irakurleak*. Udako Euskal Unibertsitatea: Bilbo, 29-40. orr.
- ARROYO, S. (2014): “El diálogo paratextual de la autoficción” in CASAS, Ana (ed.) (2014): *El yo fabulado: nuevas aproximaciones críticas a la autoficción*. Iberoamericana Vervuert: Madril, 65-77. orr.
- ASURMENDI, M. (2013-04-07): “Literatoaren biluzte emozionala” in Kritiken hemeroteka, <<http://kritikak.armiarma.eus/?p=5776>>, [2015/05/31].
- CASAS, Ana (2012): *La autoficción: reflexiones teóricas*. Arco/Libros: Madril.
- (ed.) (2014): *El yo fabulado: nuevas aproximaciones críticas a la autoficción*. Iberoamericana Vervuert: Madril.
- COLONNA, V. (2012): “Cuatro propuestas y tres deserciones (tipologías de la autoficción)” in CASAS, Ana (2012): *La autoficción: reflexiones teóricas*. Arco/Libros: Madril.
- ERRO, A. eta ZALDUA, I. (2009-01-30): “Obabakoak?” in Kritiken hemeroteka, <<http://kritikak.armiarma.eus/?p=4464>>, [2015/05/31].
- GARRO, L. (2013-04-14): “Kristalezko begi bat” in Kritiken hemeroteka, <<http://kritikak.armiarma.eus/?p=5783>>, [2015/05/31].
- GENETTE, G. (1997): *Paratexts: thresholds of interpretation*. Cambridge University Press: Cambridge.
- GOIA, G. (2013-05-18): “Maskarak” in Kritiken hemeroteka, <<http://kritikak.armiarma.eus/?p=5826>>, [2015/05/31].
- GUTIERREZ, I. (2001): “2000ko eleberrigintza” in URIBE, K. (2001) (ed.): *Azken aldiko euskal narratiba: sortzaileak eta irakurleak*. Udako Euskal Unibertsitatea: Bilbo, 143-168. orr.
- KORTAZAR, Jon (2003): *Euskal kontagintza gaur/La narrativa vasca hoy*. Cuadernos de Mangana 27: Cuenca.
- (2007) (ed.): *Egungo euskal eleberraren historia*. Euskal Herriko Unibertsitatea: Bilbo.

- (2011): *Bitartean New York: Kirmen Uriberen literaturgintza. Utriusque Vasconiae: Donostia.*
- (2013): *Contemporary Basque Literature: Kirmen Uribe's Proposal.* Iberoamericana-Vervuert: Madril.
- LASAGABASTER, J. M. (1981): *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak.* Deustuko Unibertsitatea: Bilbo.
- LEJEUNE, P. (1975): *Le pacte autobiographique.* Seuil: Paris.
- LERTXUNDI, A. (2013-05-16): “Erantzuna” in Kritiken hemeroteka, <<http://kritikak.armiarma.eus/?p=5824>>, [2015/05/31].
- MEABE, M. (2013): *Kristalezko begi bat.* Susa: Zarautz.
- OLAZIREGI, M. J. (2002): *Euskal eleberraren historia.* Labayru ikastegia & Amorebieta-Etxanoko Udala: Bilbo.
- ORMAETXEA, N. (ORIXE) (1954): “Euskerari nola eutsi”, *Euzko Gogoia* 5-8, 100-102. orr.
- RETOLAZA, I. (2007): “Hamaika Muga, Hamaika Irakurbide” in KORTAZAR, J. (2007) (ed.): *Egungo euskal eleberraren historia.* Euskal Herriko Unibertsitatea: Bilbo, 13-63. orr.
- RICKERTSEN, V. (2011): *Autofiktion: Neue Verfahren literarischer Selbstdarstellung*, <<http://www.grin.com/de/e-book/196454/autofiktion-neue-verfahren-literarischer-selbstdarstellung>>, [2016/05/31].
- URIBE, K. (2009): *Bilbao-New York-Bilbao.* Elkar: Donostia.
- ZABALA, J. L. (2015-01-11): ‘Ni’-a gero eta presenteago. *Berria*, <[http://www.berria.eus/paperekoa/1952/032/001/2015-01-11/ni\\_a\\_gero\\_eta\\_presenteago.htm](http://www.berria.eus/paperekoa/1952/032/001/2015-01-11/ni_a_gero_eta_presenteago.htm)>, [2016/05/31].
- ZALDUA, I. (2002): *Obabatiko tranbia: Zenbait gogoeta azken aldiko euskal literaturaz (1989-2001).* Alberdania: Irun.
- (2012): *Idazten ari dela idazten duen idazlea edo literatura gaixotasun gisa.* Elkar: Donostia.
- (2013-04-11): “Eragozpenak” in Kritiken hemeroteka, <<http://kritikak.armiarma.eus/?p=5790>>, [2015/05/31].
- (2014ko irailaren 11): Autofikzioaren aurkako manifestua [blog sarrera], <<https://ibanzaldua.wordpress.com/2014/09/11/autofikzioaren-aurkako-manifestua/>>, [2016/05/31].